

'TIEMPO' ZIRKOZAUURRE

Denbora besterik ez dago

Gorka Pereira eta Mar Garcíaren zirku eta dantza proiektua.
Cía. Zirkozaurre



'Tiempo'-ren **statementa-a**

Denborak gure bizitza baldintzatzen du. Nolakoa da gure denborarekiko harremana? Denbora eta espazioaren arteko benetako bizikidetza existitzen da? Edo pertzepzioaren irudizko guneak dira?

'Tiempo' zirkuaren eta dantzaren arteko erlazioa esploratzen du hizkuntza eta kode partekatuen bidez. Lan honek esperientzia bakarra sortzen du ikusleek irudikatu ditzaketen espazioetara bidaiatzeko.

Zirku eta dantza diziplinen eta elementuen arteko erlazioek lan honi pisua, dinamismoa, moldakortasuna eta kolorea emango diote. Abiadurak eta mugimenduak tempoan ezarriko dute. **Kadentzia. Erritmoa. Zure denbora, bestearen denbora.**

'Tiempo' mugimendu bitxi batekin hasten da gorputz partitura plurala bihurtu arte.

Teknologia berrietan laguntzen gara penduluaren mugimenduarekin denboraren kontzeptua lantzeko, patroi desberdinak ikertzen eta haiekin dantzatzen.

Denbora eszenaren beste atal bat bezala hartzen dugu, beste entitate bat bezala, zeinekin mugitzen, dantzatzen, elkartzten, eta marrazten dugun, hauek bereganatuz eta gorputz partitura horietan bilakatuz.



Proiektuaren **motibazioa**



The Funes Troup konpainiarekin *Aukerak* ikuskizunean lan egin ostean, **Gorka eta Mar** (Gorka Pereira antzezlea eta lanaren sortzailea eta Mar García zuzendari koreografikoa) ohartzen dira biek dauzkaten kezka artistikoak antzekoak direla. Momentu horretan erabakitzen dute elkarrekin **zirku eta dantza sortze-proiektua** aurrera eramatea, dinamika eszenikoak osatzen duten sinergiak eta elkarri lotutako mugimenduak sortuz. Proposamen hau **gorputz-mugimendutik eta esku-jokoetatik hasten da, denboraren, espazioaren eta erritmoaren arteko erlazioa** eratzen, eta hauek zabaltzen duten hizkuntza partekatua bilatuz.

"Zirkua eta dantza ezaugarri oso nabariak dituzten diziplinak dira. Haatik, elkarren arteko elkargune asko existitzen dira. Azken hauetan lan egin nahi izan dugu. Mugimendua esperientzia honen hasiera puntua da eta honen bidez beste diziplinen tempoetan barneratzen gara, **kadentziarekin eta abiadurarekin jolasten**, bien arteko desberdintasunak xahutuz eta diziplinarteko espresio era berri bat indartzen." Ildo honetatik, 'Tiempo' **ikusentzunezko bidearekin jolasten du bideo-mapping erabiliz** eta ikusleari gonbidatzen dio **"entzute" ireki eta aktibo** batera.

Artistak



Gorka Pereira (Bilbo, 1977)

Gorkak 15 urte baino gehiagoko esperientzia du zirku artista bezala eta eskujoko, oreka, akrobazia eta baskulako diziplinetan. Akrobazia eta malabar diziplinen inguruko formakuntza integrala jaso zuen Buenos Aires-eko La Arena zirku-eskolan eta hainbat irakasleren eskutik, besteak beste, Stefan Sing, Pascal Angelier edo Cia Balagans.

Bere ibilbide profesionalari dogokionez, ikuskizunen sorkuntza eta interpretazioa burutu du (Debote Enbote, The Funes Troup...) eta Bilbon kokatutako Zirkozaurre zirku-espazioaren fundatzaileetako bat da. Azken honetan gogor lan egin du zirkuaren profesionalizazioa lantzen, malabar eta akrobazia tailerrak irakasten eta espazioaren kudeaketa eta zuzendaritza artistikoa eramaten.

Mar García (Santurtzi, 1984)

Bere formakuntza Burgoseko dantza eskola profesionalean hasi zuen eta bere ibilbidea jarraitzen du nazioarteko festibal eta workshop desberdinetan parte hartzen. Formakuntza hau beste kurtsoekin osatzen du, Freiburg-eko Contact Improvisation festibalean (akrobaziak, altuera bikoitzak ete orekak), Zirkozaurre zirko-espazioan eta Neerpelt-eko (Belgika) Experiential Learning zirku konbentzioan 2018an.

Bere ibilbide profesionala proiektu artistikoetara (antzezlea eta zuzendaritza koreografikoa), bai eta Euskadiko profesionalentzako dantza garaikidearen irakaskuntzara eta formakuntzaren kudeaketara lotuta dago. Gainera, Bizidantza Elkartea sortu du beste kideekin batera.



Fitxa artistikoa

Kontzeptua eta performancea:

Gorka Pereira, Mar García

Soinua:

Rodrigo Tamariz (RTM&M)

Kamera:

Mauri Martín, Levi Pacheco

Jantzitegia:

Vanesa Scalada Studio

Akonpainamendu artistikoa:

Stefan Sing, Jorge Silvestre

Ekoizpena:

Zirkozaurre


Coprodukzioa:

BAD, Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco

Basauriko Sozial Antzokiak lagundua.

Ikusle guzteei zuzendutako ikuskizuna.

Iraupena: 45 min



Fitxa teknikoa

Beharrezko espazio eszenikoa:

8 m. zabalera X 6 m. luzera

Altuera aproposa:

8 m.

Beste behar teknikoak:

Gainazal laua, inklinaziorik gabe eta linolioa duena.

Hondoko oihalaren ziklorama estandarra.

Proiektagailua jartzeko erdiko haga.

Argiztapena:

12 rekorte (gutxienez)

PAR 64 – CP62 (12 unitate)

PC 1000W (19 unitate)

Furgonetarekin sartzeko beharra.

Kamerinoak komunarekin, dutexarekin eta edateko urarekin.



Teaser - 'Tiempo'



<https://www.youtube.com/watch?v=0MFfGJwTL1o>

KONTAKTUA

ZIRKOZAURRE

Deustuko Erribera, 70B
Antigua Fábrica de Artiach en Zorrozaurre
48014 Bilbo (Bizkaia)

WEB

www.zirkozaurre.com

EMAIL ETA TELEFONOA

zirkozaurre.mediacion@gmail.com

946 521 038 / 640 636 929

